



Maiatzaren 3ko 314/2024 Ebazpena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez ezartzen den etendura-data izen-emateak integratzeko indarrean dauden aldi baterako kontratazio-zerrendetan, 2021eko uztailaren 21eko Erabakiari jarraiki 2018-19ko EPEko hautaketa-prozesuan deitutako kategoria / lanpostu funtzional guztiak esleitu ondoren sortutakoetan, baita oposizio-faseko puntuazioarekin eguneratzerara ere.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren bidez, 2023ko urriaren 31ko Erabakiaren bidez onartutako aldaketekin batera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko aldi baterako kontratazioko zerrenden eraketa eta kudeaketa arautzen dira (EHAA, 220 zk., 2023ko azaroaren 17koa).

Aldi baterako kontratazioko zerrendak, Osakidetza zuzendari nagusiaren irailaren 22ko 1168/2021 Ebazpenaren bidez eratu ondoren, irekita egongo dira beti, eta edozein unetan erregistratu ahal izango dira izena emateko eskabideak.

Erabakiaren 8. artikulua eta 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, azken Enplegu Publikoaren Eskaintzako (2018-19ko EPE) hautaketa-prozesuan parte hartu duten eta estatutupeko langile finko izaera lortu ez diren izangaiek, kontratazio-zerrendetan izena eman ez badute, zerrendetan izena emateko eskaera egin ahalko dute, epe barruan eta ezarri den moduan. Halaber, kontratazio-zerrendetan jada dauden pertsonen puntuazioa eguneratuko zaie, aipatutako EPEan lortutako nota kontuan hartuta. Dagoeneko amaitu diren edo laster amaituko diren 2018-19ko EPEko deialdi guztiak sartu dira, prozesua arintzeko.

Era berean, 2018-19ko EPEko hautaketa-prozesuan parte hartu ez duten pertsonen ere aurkeztu ahal izango dute aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko eskaera, baldin eta izena emateko eskaera ezarritako moduan eta epean egiten badute.

Erabakiaren 20. artikulua arabera, aldi baterako kontratazio-zerrenda guztien lehenetsun-ordenak barne hartzen ditu amaitutako azken Enplegu Publikoaren Eskaintzaren oposizio-faseari dagokion puntuazioa (kasu honetan, 2018-19ko EPEa izango litzateke eskaintza horretan sartutako 82 kategoria/lanpostu funtzionalarako; horren zerrenda I. eranskinean dago), esperientzia eta euskararen ezagutza.

Beraz, aipatutako kategoria / lanpostu funtzionalarako indarrean dauden zerrendetan sartzeko etendura-data ezartzen da, indarrean dauden kontratazio-zerrendetan ez dauden (integratutakoak zein integratu gabekoak) eta izena emateko eskaera egiten duten pertsona guztiak integratzeko (betiere kategoria/lanpostu funtzionala betetzeko eskatzen diren baldintzak modu eta epean betetzen badituzte). Era berean, zerrenda horiek **eguneratuko** dira 2018-19ko EPEko oposizio-faseari dagokion puntuazioarekin. Horrek egungo zerrendako oposizio-faseko puntuazioa ordeztuko du, baita EPE honetan izena emateko epearen azken egunera arte (I. eranskinean adierazitako data) Osakidetza kanpo egiaztatutako esperientzia ere. Era berean, 21. artikulua arabera, kontratazio-zerrenda horiek Osakidetza emandako esperientziaren arabera eguneratuko dira, baita dagoeneko integratuta dauden pertsonen aplikagarria zaien hurrengo eguneratze-datara arte egiaztatutako hizkuntza-eskakizunen eta euskara-tituluen arabera ere (kasu honetan, 2024ko ekainaren 30a).

Kategoria / lanpostu funtzional horietan indarrean dauden aldi baterako kontratazio-zerrendetan **jada onartuta dauden pertsonen** ez dute inskripzio-eskaera berririk egin behar; hala ere, aldaketak egin ahal izango dituzte eskabidean.



Izena emateko eskaera aldez aurretik egin duten eta **baztertuak izan diren pertsonak** berriro aurkeztu beharko dute eskabidea, etendura-datan (2024ko maiatzaren 19a) baldintzak betetzen dituzten baloratu ahal izateko.

8.4. artikulua araber, izen-ematea Osakidetzaren aldi baterako kontrataziorako webgunearen bidez egingo da (<https://www.osakidetza.euskadi.eus>), bertan dagoen izena emateko formulario elektronikoaren bidez. Formulario horretan, izangaiak kategorietarako / lanpostu funtzionalarako eskaera egingo du, eta curriculum vitae beteko du, aldi baterako kontratazioan balora daitezkeen datu alegatuekin.

Web-orri horretan argitaratuko edo jakinaraziko dira aldi baterako kontratazioko zerrenden inguruko hartzaile anitzeko egintzak. Era berean, izendapen-eskaintzetan parte hartzeko eta haietatik eratorritako jarduerak eta erabakiak jakinarazteko erabiliko da.

Eskabidean ageri diren helbidea, telefona eta helbide elektronikoa joko dira jakinarazpenetarako baliozko datutzat. Eskabidean datuak oker jarri izana eta datu horietan eguneratzeak egitea eskatzailearen erantzukizuna izango dira, ez beste inorena.

Hori dela-eta,

EBAZTEN DUT:


Lehenengoa.- 2024ko maiatzaren 19a ezartzea etendura-data gisa, 2018-19ko EPEan deitutako eta I. Eranskinean zerrendatutako kategoria / lanpostu funtzionalarako kontratazio-zerrendetako izen-emate berriak integratzeko, Osakidetza Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren II. Kapituluaren ("Zerrendak sortzea") ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.- Kontratazio-zerrenda horietan benetan integratzeko, izangaiak kategoria / lanpostu funtzional horretan aritzeko eskatzen diren eskakizunak etendura-datan (2024ko maiatzaren 19a) bete beharko dituzte, eta denboran mantendu behar dituzte.

Hirugarrena.- Era berean, 2018-19ko EPEan deitutako kategoria / lanpostu funtzionalen kontratazio-zerrendak **eguneratuko** dira, hautaketa-prozedura horretako oposizio-faseari dagokion puntuazioarekin, lanbide-esperientziarekin eta egiaztatutako euskarazko hizkuntza-eskakizunekin.

Bosgarrena. - Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahalko zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 3a



Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga
OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

I. ERANSKINA

LANBIDE-TALDEA	2018-19KO EPE DEIALDIAK	2018-19ko EPEko eskaeren epe bukaera
A1	ALERGOLOGIAKO FEM	2022-06-02
A1	ANATOMIA PATOLOGIKOKO FEM	2022-06-02
A1	KIRURGIA OROKORREKO ETA DIGESTIO APARATUKO FEM	2022-06-02
A1	AHOKO ETA AURPEGI MASAIETAKO KIRURGIAKO FEM	2022-06-02
A1	KIRURGIA PEDIATRIKOKO FEM	2022-06-02
A1	ZAINKETA ARINGARRIEN FEM	2022-06-02
A1	FAMILIAKO MEDIKUNTZAKO FEM - LMAT	2022-02-24
A1	DERMATOLOGIA MEDIKO KIRURGIKOKO ETA BENEREOLOGIAKO FEM	2022-06-02
A1	EMERGENTZIETAKO FEM	2022-06-02
A1	ENDOKRINOLOGIAKO ETA NUTRIZIOKO FEM	2022-06-02
A1	GAIXOTASUN INFEKZIOSOEN ARLOKO FEM	2022-06-02
A1	EPIDEMIOLOGIA KLINIKOKO FEM	2022-06-02
A1	HEMATOLOGIAKO ETA HEMOTERAPIAKO FEM	2022-06-02
A1	ETXEKO OSPITALIZAZIOKO FEM	2022-06-02
A1	LANEKO MEDIKUNTZAKO FEM	2022-06-02
A1	MEDIKUNTZA FISIKOKO ETA ERREHABILITAZIOKO FEM	2022-06-02
A1	BARNE MEDIKUNTZAKO FEM	2022-06-02
A1	MEDIKUNTZA NUKLEARREKO FEM	2022-06-02
A1	PREBENTZIO MEDIKUNTZAKO ETA OSASUN PUBLIKOKO FEM	2022-06-02
A1	NEFROLOGIAKO FEM	2022-06-02
A1	PNEUMOLOGIAKO FEM	2022-06-02
A1	NEUROLOGIAKO FEM	2022-06-02
A1	OBSTETRIZIAKO ETA GINEKOLOGIAKO FEM	2022-06-02
A1	OFTALMOLOGIAKO FEM	2022-06-02
A1	ONKOLOGIA MEDIKOKO FEM	2022-06-02
A1	OTORRINOLARINGOLOGIAKO FEM	2022-06-02
A1	PEDIATRIAKO FEM - LMAT	2022-02-24
A1	OSPITALEKO PEDIATRIAKO FEM	2022-06-02
A1	PSIKIATRIAKO FEM	2022-06-02
A1	HAUR PSIKIATRIAKO FEM	2022-06-02
A1	ERRADIODIAGNOSTIKOKO FEM	2022-06-02
A1	ERREUMATOLOGIAKO FEM	2022-06-02
A1	KSU-KO FEM	2022-06-02
A1	ANALISI KLINIKOKO FEMT	2022-06-02
A1	BIOKIMIKA KLINIKOKO FEMT	2022-06-02

LANBIDE-TALDEA	2018-19KO EPE DEIALDIAK	2018-19ko EPEko eskaeren epe bukaera
A1	IMMUNOLOGIAKO FEM	2022-06-02
A1	OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO FEMT	2022-06-02
A1	OSPITALEKO FARMAZIAKO FET	2022-06-02
A1	PSIKOLOGIA KLINIKOKO FET	2022-06-02
A1	FARMAZIAKO FT	2022-06-02
A1	ODONTOLOGIAKO FT	2022-06-02
A2	GOI MAILAKO INGENIARIA (MANTENTZE LANETAKO ETA INSTALAZIOETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA)	2022-06-02
A2	ADMINISTRAZIOKO ETA KUDEAKETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	2022-06-02
A2	EKONOMIAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	2022-06-02
A2	INFORMATIKAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	2022-06-02
A2	GOI MAILAKO TEKNIKARI JURIDIKOA - LETRADUA	2022-06-02
A2	EUSKARAREN NORMALIZAZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	2022-06-02
A2	ANTOLAKUNTZAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	2022-06-02
A2	ERGONOMIAKO ETA PSIKOSOZIOLOGIAKO PREBENTZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	2022-06-02
A2	SEGURTASUNEO ETA HIGIENEO PREBENTZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	2022-06-02
B1	ERIZAINA	2022-02-24
B1	LAN OSASUNEO ERIZAINA	2022-02-24
B1	OSASUN MENTALEKO ERIZAINA	2022-02-24
B1	FISIOTERAPEUTA	2022-02-24
B1	EMAGINA	2022-02-24
B1	LOGOPEDIAN DIPLOMADUNA	2022-02-24
B1	OPTIKAN ETA OPTOMETRIAN DIPLOMADUNA	2022-02-24
B1	TERAPEUTA OKUPAZIONALA	2022-02-24
B2	INGENIARI TEKNIKOA (MANTENTZE LANETAKO ETA INSTALAZIOETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA)	2022-06-02
B2	GIZARTE LANGILEA	2022-02-24
C1	ANATOMIA PATOLOGIKOKO ETA ZITOLOGIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2022-02-24
C1	AUDIOPROTESIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2022-02-24
C1	DIETETIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2022-02-24
C1	DOKUMENTAZIO SANITARIOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2022-02-24
C1	LABORATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2022-02-24
C1	ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2022-02-24
C1	ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2022-02-24
C2	ADMINISTRARIA	2022-02-24

LANBIDE-TALDEA	2018-19KO EPE DEIALDIAK	2018-19ko EPEko eskaeren epe bukaera
C3	SUKALDARIA	2022-06-02
C3	INFORMATIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2022-06-02
C3	GIROTZE INSTALAZIOETAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2022-06-02
C3	INSTALAZIO ELEKTRIKOETAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2022-06-02
C3	ELEKTROMEDIKUNTZAKO INSTALAZIOETAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2022-06-02
D1	ERIZAIN LAGUNTAILEA	2022-06-02
D1	FARMAZIAKO LAGUNTAILEA	2022-06-02
D2	ADMINISTRARI LAGUNTAILEA	2022-06-02
D3	ZERBITZU OROKORRETAKO OFIZIAL GIDARIA	2022-06-02
D3	GARRAIO SANITARIOAREN OFIZIAL GIDARIA	2022-06-02
D3	EMERGENTZIETAKO IBILGAILUEN OFIZIAL GIDARIA	2022-06-02
D3	MANTENTZE LANETAKO OFIZIALA	2022-06-02
E1	ZELADOREA	2022-06-02
E1	ZERBITZUETAKO LANGILEA	2022-06-02